

zen ere, aurrera dijoaz erri askotan uste eta asmoak, eta ori da bear dana gure nortasuna geroago ta aundiagoa izan dedin.

Bertsolariak izan ziran bertso bana kantatuz jai idigi zutenak. Dotore zeuden Euskaltzaindiaren ezkutuaren azpian joan dan mendeko erropakin jantzita, kapela ta guzti. Guztiz iru izan ziran, igaz agustuan Bizkaiko txapeldun gelditu ziran irurak. Gero Ondarrutarrak «Seaska inguruan» eman zuten, gabeton kutsuko obra eder eta nagusi bat. Ia eun ondarrutarrek parte artu zuten eta ikusle-entzuleak arrituta gelditu ziran aien biotz fiafia ta dotorea eta aien batasuna ikustean. Txinpartako eta Dindirrikoen artean Zuberoako dantzak aurkeztu zituzten. Mungiaokoak «Eguen zuri» obra labur bat, baiña nola aurrak ere parte artzen duten eta gaira eskola bat ere agertu, euskeraz itz egiten dutelarik aurrak, oso pozik eta gustura ikusi zan. Eta egin ere oso ongi eta naikoa barre eragifrik egin zuten. Eta azkenez Iruñeko Koral Kamarakoak amar kanta Euskalerriko eskeifii zituzten. Munduan zear fama aundikoa degu koral eder au eta Bilbon ere arrakasta aundia izan du eta jaialdi osoari giro dotore eta aristokraziaako bat kutsatu zion.

Uste degu geroago ta geiago jarraituko dala beste erri batzuetan ere Ondarruko eta Mungiaokoak eta baita besteak erakutsi diguten bide ederra. Baldin orrela bada ez izan dudarik batere gure nortasuna benetan sendotuko dala.

EUSKAL-KONZERTU NAGUSI BAT BILBON

Arriaga Teatroan otsaillaren 22-an euskal-konzertu nagusi bat eman zan. Aita Madina ofñatiarraren obrak jarri ziran J. Maria Gonzalez Bastida jaunak zuzendurik. I. Orreaga. II. Aita gurea. III. Illeta. Eta bigarren partean: Arantzazu. Parte artu zuten: Bilboko Orkestak, Ofñatiko Schola Cantorum Santa Cecilia-k eta Donostiako Stella Maris-ek, guztiz eun eta berrogetaamar boz inguru. Teatroa oso beterik zegoan eta txalo ugari entzun zuten jotzaille ta kantariak, eta batez ere Aita Madina autoreak. Bilboko alkate Zuazagoitia jauna ere entzule egon zan eta autoreari bere aldamera dei egin zion. Bukieran jentea txaloka asi zitzaion autoreari, eta «Aita Gurea» berriz jotzeko eskatu zan ixiltasun aundi baten erdian bigarren aldiz entzunik.

BERMEOKO JAI

Otsaillaren 10-ean Bermeoko Ercilla Saloian euskal egun bat egin zan, jaialdi bikoa, bata arratsaldean eta bestea gabean. Leendabizi itz batzuek esan zituen Irigoyen jaunak, eta urrengo Ormaeche eta Pujana bertsolariak ekin zioten. Gero Robles Aranguiz anaiak, Mungiaoko teatrulariak, eta Basurtuko kaputxinoetako taldeak. Auek dantza ederrak eskeifii zituzten irudi txukun batzuetan, ipuin eta oitura zaarrez ongi kutsatuak. Ona emen Irigoyen-en itzaldia: